

Bi zartzuela horiek David Arzamendik zuzendu zituen, eta haren anaia Juan Arzamendi pianoan.

Carlos Enguídanos-en "LOPEZ DE RUEDA" antzerki konpainiarekin egindakoak.

Berbako antzerki konpainia hura Zaldibar jarri zen. Haren kideen artean artista handiak ziren, eta guztien gainetik Enrique Soler tenorea zegoen, zartzuelazale handia bera.

Konpainia hartako beste kide batzuekin eta Parrokiako abesbatzako kide batzuekin eta "Octavo"ren lagunekin zartzuela hauek errepresentatu ziren:

"LA DOLOROSA", 1955eko abenduaren 9an; parte hartu zuten Teresita Bravo, Enrique Soler, Jose M. Mendizabal, Jose Antonio Gonzalez jaun-andreek, Santocha senar-emazteek, Jesús Barrutiak eta Parrokiako abesbatzak; zuzendari David Arzamendi, eta orkestan Udaleko Musika Bandako hainbat kide, eta pianoan Juan Arzamendi.

"LOS CLAVELES", 1955eko abenduaren 18an; parte hartu zuten Teresita Bravo, Enrique Soler jaun-andreek, Santocha senar-emazteek, Enrique Lamiñana, Paulino Ladrón de Gebara jaunek eta Parrokiako abesbatzak; zuzendari David Arzamendi, eta orkestan Udaleko Musika Bandako hainbat kide, eta pianoan bera bakarrik Juan Arzamendi.

"MARINA"ren brindisa eta LA ALEGRIA DE LA HUERTAren jota eta antzeslan komikoa, Parrokiako abesbatzak.

1955eko abenduan, Zaldibarko frontoiko karpan





eta San Juaneko plazan jarduteari utzi eta hurrengo errepresentazioak "Gurea" frontoi-zineman egin ziren; hauek errepresentatu ziren:

Sorozabal-en "LA DEL MANOJO DE ROSAS", 1955eko abenduaren 28an; parte hartu zuten Maribel Escrich, Enrique Soler, Teresita Bravo eta Jose Antonio Gonzalez jaun-andreek eta Konpainiaren abesbatzak; zuzendari David Arzamendi eta pianoan bera bakarrik Juan Arzamendi.

Guridiren "EL CASERÍO", 1956ko otsailaren 28an, eta martxoaren 1, 2 eta 3an; parte hartu zuten Maribel Escrich Madrilgo sopranoak, Enrique Soler, Jose M. Mendizabal, Juan Jose Axpe, Marichín Villar, Simón Arregi, Amaia Gorroñoitia, Esteban Pagoaga jaun-andreek eta Parrokiako abesbatzak; zuzendari David Arzamendi eta Gasteizko Kamera Orkestra eta pianoan Juan Arzamendi.

Enguídanos Konpainiak alde egindakoa, eta zartzuelaren zaletasuna ondo baino hobeto zabalduz utzi eta gero, zartzuela batzuk izan ziren "Gurea" zineman; musika eta gizarte gertakari handia bizi izan zuten Arrasaten.

Zartzuela hauek errepresentatu ziren:

Sorozabalen "KATIUSKA", 1956ko azaroaren 20 eta 21ean; parte hartu zuten Maria Jesus Vega, Jose M. Mendizabal, Fernando Aranburu, Marichín Villar, Jose

Antonio Gonzalez, Simón Arregi, Jose Antonio Altuna eta Jon Belar jaun-andreak, eta Parrokiako abesbatzak; zuzendari David Arzamendi eta Gasteizko Kamera Orkestra, eta pianoan Juan Arzamendi.

Sorozabalen "LA TABERNERA DEL PUERTO", 1957ko maiatzaren 4an, parte hartu zuten M^a. Visi Coto, Jose M. Mendizabal, Fernando Aranburu, Nicolas Agirre, Simón Arregi, Libe Iñarra, Marichin Villar eta Luis Maidagan jaun-andreak, eta Parrokiako abesbatzak, zuzendari Jesús Aranbarri eta Gasteizko orkestra, eta pianoan Juan Arzamendi.

Jesús Guridiren "EL CASERÍO", 1958ko maiatzaren 7an, Jesús Guridi egilea bera bertan zela. Parte hartu zuten: Consuelo Azkoaga, Fernando Aranburu, Francisco Nafarrete, Jose M. Mendizabal, Marichin Villar, Simón Arregi, Consuelo



"La Taberna del Puerto" Sorozabal-ena. 1957ko Maiatzaren 4.

Azkargorta eta Amaia Gorroñogoitia jaun-andreak, eta Parrokiako abesbatzak; zuzendari David Arzamendi eta Gasteizko Kamera Orkestra, eta pianoan Juan Arzamendi.

Irunen ere errepresentatu zen "EL CASERÍO" 1958ko uztailaren 1ean eta Gasteizen, Jesús Guridiren omenez, bera ere hantxe zela.

"VIENTO SUR", Jesús Aranbarriena, Arrasateko Gurea zineman, 1958ko abenduaren 19, 20 eta 21ean; parte hartu zuten Consuelo Azkoaga, Sara Montalbán, Marichin Villar, Jose M. Mendizabal, Fernando Aranburu, Francisco Nafarrete, Jose

Antonio Gonzalez, Simón Arregi, Rafael Fernández, Rafael Amozarrain, Jon Belar, Jabier Etxebarria, Esteban Pagoaga eta Felix Elorza jaun-andreek, eta Parrokiako abesbatzak; zuzendari Jesús Aranbarri egilea eta Gasteizko Orkestra handia, eta pianoan Juan Arzamendi.

"MIRENTXU", Jesús Guridirena, Arrasateko Gurea zineman, 1960ko ekainaren 11, 12 (domeka arratsaldean eta gauean) eta 13an, estreinaldiaren 50. urteurrena ospatzeko, Jesús Guridi egilea bera bertan zegoela; parte hartu zuten Consuelo Azkoaga, Sara Montalbán, Fernando Aranburu eta Francisco Nafarrete, Jose M. Mendizabal, Jose Antonio Agirre, Rafael Fernández jaun-andreek, Francisco, Maria Rosario y Amaia Azpiazu hurrek eta Parrokiako abesbatzak; zuzendari Jesús Aranbarri eta Gasteizko Orkestra handia, Albina Madinabeitia eta pianoan Juan Arzamendi. ALfontso X Jakintsuak Arrasateri hiri gutuna eman izanaren VII. Mendeurrena zela-eta jarri zuten eskenan. Arrasaten egin den azken zartzuela izan zen hura, eta Tristán de Easo musika kritikoak idatzi zuen egunkarian "esan ezazu –esan zigun Guridi maisuak– hunkitu egin nauela ikusteak zein ederto egin duen Arrasateko herri osoak nire "Mirentxu"ren bertsioa.

Arrasateko Udalak plaza bat eskaini zion Jesús Aranbarri maisuari, eta kale bat Jesús Guridi maisuari.

Juan Arzamendi

